

ARRANTZALIA



Arrantzalia naiz ta
eztaukat dirurik.....

Oraindik urrin urrin dagokit
egun sentiko gozo-argiya,
gabak dituan baño beltzetan
goiz arteraña mende jarriya,
a zer sumintzu onek dakarren
gaitz zakonaren antz t'irudiya,
animan iñoin sortu diraden
neke ta miñen ordu larriya!

Bene benetan maitatu neizke:
goiz usayaren argi berriya,
zillar zoroan maneatzan dan
izar doatsu apaingarriya,
urre matazan ase datorren
eguzkiyaren agergarriya
eta laguntzat abek dakazten
ipar aizecho jostalariya.
Betor bai goiza, zorionean!..
alaitu beza berak sortitza,
sendaturikan ausper dagoan

lorak senti dun eziyotz gaitza:
 bete Iezake berak gañezka
 gozamen pozaz nere biyotza;
 izango nuke beretzat beti
 esker oneko ordain-oroitza
 joango balira adimenean
 astun dagozan baño bakoitza,
 argitan doyan arrantzaleen
 onrragarritzat nere neurtitza.

*
 * *

Baiñan gabea dagonean
 zorigaitzean illun lurbira,
 animan ere baztanak illun
 kutsun daudelanago begira:
 nere biyotzak nabaitutzen du
 odoi beltzaren igortzi-jira
 ta eztakit zertan lanbro puzketak
 datoza onuntz jira ta bira,
 adimeneko muga dontzuak
 lasaitzen diran tontor mendira,
 argitan pleitzu dayon ichaso
 eguzkiyaren jayotokira,
 animak bere maetasunean
 aruntz daraman aurre-mugira,
 ezta ezertan inolaz geitzen
 egun ta gaben ordu neurrira:
 gabarik entan leku gozora
 gogamen denak zuzentzen dira,
 uso doaidun, egoz askarrak,
 pasalariyak legez balira,
 beti illezkor, beti zorion
 atsedentzen dan leku berrira.

*
 * *

Oraindik urrin urrin dagokit
 egun sentiko argi sustsua:
 gabaz, illuntze astun batean

Arrantzalia goitzera nua.

Gabaz bitsetan dijoakio
ichasoari bere orrua:
bera da dongai beti malkoaz
aunditutzen dan negar putzua,
mutil gazteak, loze ziranak,
galan dituan endi gaiztua
gizon zarraren merezi etzuten
eriyotzaren oti-zulua,
eztakit zenbat zenbat zorroztu
zintzo dankatan nere sentzua,
bitaundutzeko ichasoaren
nayera baldres, zantar, ichua!....

Alaz guztiyaz arrantzalia
gabaz chalupan urrin dijua,
maneaturik lankidarako
kemen t'adorez bere besua,
a zein urruti gelditzen zayon
begiradatik eche gozua,
emaste t'aurrak alaitzen duten
estalpe eder zoramantzua!...
a zein urrti gogo ta nayak!...
zenbat bidean amodiyua
bajatzan daki, irabazteko
eguneroko ogi pisua,
ez chaldan, baldres, alperkeriaz
astok jaten dun irudikua;...
zenbat aultzen dan lan zartadean
Arrantzalien gorputz sendua
datorrenean gabaz ta egunez
bere laneko une t'ordua!..
nola dijoan bekokiz bera
izerdiyaren jasa osua,
aurkeztaturik sariya beti
merezi duan neke dontsua!...
Ikusi degu aldi danetan
Arrantzalia sariztatua?...
a zenbat aldiz alperrik diran

jardun, arreta, tan ta gogua,!....
 zenbat unetan ikusi diyo
 ekaitz beltzari goibel musua,
 ti arrantzik gabe, trabes bezela,
 echera dator gizarajua!...

Begoz bai, zer dan ezta kiteñak
 ichasoaren bits t'amorrua,
 entzizik gogor, amets gozuan,
 illun aldiko pakezko lua,
 bitarte ortan alcha dezatan
 antaturikan larros-lekua,
 chalupan gabaz boga ta boga
 aurrera doyan gizon zintsua.

*
 * *

Mochak dira, bai, lurbira ontan
 gizonak eman leizken sariyak,
 ordaindu nayaz, arratzalien
 bertute eder onrragarriyak.

Bertute oyek zerutik datoz
 usoak legez, egalariyak,
 esleitu naizik gizon artean
 landa ta soro maitagarriyak,
 eta goitikan onutz datozen
 jaunaren uso rnantariyak,
 a zer abegi ona dioten
 arrantzalien biyotz gastiyak!...

Biyotz doneak merezi dute
 urrin dagozen leku goitiyak,
 ta eztitu goitzen, ez milla bider!
 neurtitz abetan koblakariyak,
 sinisinen gabe, askoren grña
 egintza char ta lasaikeriyak:
 emen dijoaz biyotz-mugidak,
 sentsu oneko kemen guztiyak.
 Fedez bizi dan koblakariyen

adimeneko indar argiyak,
goititutzera, mariñel zintso
Jaunaren lege maitalariyak:
oyentzat dira, gogoz ta pozaz
nere liraren soñu-eztiryak!

*
* *

Ezta kitzenbat kantetan goitu:
ichas-erriko gizasemia,
emaste t'aurrai datorkioten
laguntza, osasun irazekia,
arrantzarako egintza zallak
beartzen duten gizon trebia,
ichaso charrak sortzen dituan
eragozpenen garaitzallia,
beti korayaz guztiz ornitsu
echeratzen dan gudalaria.

Bere biyotza ezta besterik:
bertuaren jayo-tokia;
Jaungoikoaren eskuan dauka
icharopen ta uste bizia,
osatu dedin beregan beti
zeru-goyeko borondatia.

Zenbat bider, bai, landarrak jo du
bere biyotzan daugaz atia...
Izanik bera beartsuago,
a beti goi dan karidadia!
eman oi diyo lagun-urkoai
ogi erdiyen beste zatia.
Mariñel onak betetzen daki
maitaro, leyal, kristau legia,
eta sarritan eleizachoan
ikusten detan gizon gaztia,
nolatan zarra, arpegiz zimel,
belarriz zorrotz, bizar zuria,
choko batian, auspez jarrita,
ederren geitzuz gorde-gordia.

ori da beti maitatzen detan
egiyetako arrantzalia!...

*
* *

Betor, bai, goiza, zorionean!
betor goizeko argi aurrena,
betor gugana goizabar geldi
zillar ta urrez apaintzu dana.
Betor, bai, goiza!... beste goiz baten
ispillu eta icharopena,
beior beingoan irudi gozo
atseden beti-betikoena...
Gora biyotzak! ... ezta saritzen
emen, munduan, gure jarduna;
ezta peetuko zorioneko
ur leyar meaz biyotz utsuna,
alik denborak askatu aste
aragiyazko jantzi astuna...
Fede donean maita zaitutan
zeru erdiko izar urruna,
zatozkit laister, oh gloriyako
betiko goiza, betiko eguna!...

.....
Arrantzalia icharon dago:
lana meriyoz erdi-eriya,
Arrantzarako tresnak besoan
eudi zakarrez dena bustiya.
Echeratzeko icharon dago
jaso artean bere sariya.
¡O Jesus ona, Jaungoiko bera,
Arrantzalien antalariya,
Gertatu zazu biyotz ederrak
merezi duten goza-tokiya!

RAMON

INZAGARAY.

